



## LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako  
Idazkaritza Nagusia  
Europako Gaietarako Zuzendaritza

## PRESIDENCIA

Secretaría General de  
Acción Exterior  
Dirección de Asuntos Europeos

## Europar Kontseiluaren ohiz kanpoko bilera (EBTren 50. artikulua) Brusela, 2019ko apirilaren 10a

*Europar Batasuneko 27 Estatu kideen Estatu- eta Gobernu-buruek (denek, Erresuma Batuak izan ezik) bilera egin zuten Bruselan 2019ko apirilaren 10ean.*

Europar Batasunak akordio bat lortu du Erresuma Batua ateratzea bigarren aldiz atzeratzeko. Izan ere, apirilaren 12tik urriaren 31ra atzeratu da. EBko Tratatuaren 50. artikulua (EBT) arabera, EBko gainerako 27 Estatu kideei dagokie aho batez erabakitzea EBtik ateratzeko epemugaren luzapena onartzen ote duten.

Gogoratu behar dugu martxoko bileran, Europar Kontseiluko 27 Estatu kideek bi aukera eskaini ziotela Erresuma Batuari: (i) Ateratze Akordioa 2019.04.12 aurretik onartzea, edo aukera horrek huts eginez gero, (ii) denbora gehiago behar duela onartzea.

Ikusirik Erresuma Batuaren ezintasuna Ateratze Akordioa aipatu dataren aurretik onartzeko, denek onartu zuten epe hori luzatzea nahitaezkoa zela. Europar Kontseiluko bilera horren ardatz nagusia luzapen horren iraupena eta Erresuma Batuari exijitu beharreko baldintzak definitzea izan da.

Iraupenari dagokionez, Mayk luzapen laburra eskaini du. Aitzitik, gainerako 27 Estatu kideek, orokorrean, luzapen luzeagoa nahi zuten. Hainbat data aipatu dira, hala nola 2019.12.31 edo 2020.03.31.

Azkenean, 27 estatu kideen artean adostasuna lortu ahal izateko, 2019ko urriaren 31 aukeratu da.

Estatu kideak adostu dutenaren arabera, Batasunaren etorkizuna argitu egin behar da Brexitari dagokionez. Gainera, Erresuma Batuko Parlamentuan azaroaz geroztik izandako gertaeren ondorioz, Estatu- eta Gobernu-buru gehienek konfiantza galdu dute Mayk bere helburua lortuko duenaren inguruan, alegia, Ateratze Akordioa onartzearen inguruan. Azkenik, azkeneko egunetan, Erresuma Batuko Gobernuaren eta Alderdi Laboristaren artean izandako elkarrizketak ikusirik (eta kontuan izanik Jeremy Corbynek bere “lerro gorriak” “mugitzeko” aukera oso gutxi dagoela), dirudienez, negoziatioek luze joko dute Erresuma Batuan, eta Europar Kontseiluak ezin ditu bilerak hain sarri egin atzerapen gehigarriak emateko, ez baita bideragarria.

Europar Kontseiluak lortutako itunaren helburua da oreka bat aurkitzea denbora irabaztearen aldeko Estatu kideen, eta Erresuma Batua atzeratzearen kontua ahalik eta azkarren ebazteko epemuga jarri nahi duten Estatu Kideen artean.

Alemaniak zuzendutako taldeak, hasieran, urtebeteko luzapena proposatzen zuen; orain, luzapen laburragoa onartu du. Aitzitik, Frantziak zuzendutako taldeak bi hilabete proposatu zituen, eta orain, luzapen handiagoa onartu du; hala ere, epe bat finkatzea lortu du, Erresuma Batua EBko erakunde-berritzetik kanpo geratzeko. Izan ere, 2019.10.31ean amaitzen da egungo Europako Batzordearen indarraldia.

Frantzia beldur zen Erresuma Batua EBn izatearen ondorioz EBko kargu asko berritzeko prozesua okertu zedin. Horrela, luzapen horren ondorioz, Erresuma Batua Europar

Parlamentuko hauteskundeetan parte hartzera behartuko dute, baina Erresuma Batuko diputatuak 2019.10.31 aurretik atera beharko dira hemiziklotik, eta etorkizuneko batzorde-kide britaniarrak (hala izanez gero) ez du inoiz bere kargua beteko, baldin eta urrian ateratzen direla baieztatzen bada.

EBk Erresuma Batuari exijitzen dizkion bermeei dagokienez, ondorioen testuan gehien errepikatzen den testua “lankidetzaz leiala” exijitu behar dela da. Erresuma Batua Batasunean izaten jarraitzea Estatu kide bat izaten jarraitzea dakar, dagozkion obligazio eta eskubide guztiekin. Ordezkaritza izango du Batzordean eta Kontseiluan, baita Europako Parlamentuan ere. Arazoa hori da. Izan ere, Erresuma Batuan hainbat gertakizun izan dira: erreferenduma, hauteskundeak, Gobernuak hainbat kidek dimisioa aurkeztu dute, Erresuma Batua EBtik ateratzea negoziatzeko bi ministro izendatu dituzte arduradun moduan, eta Alderdi Kontsebadorearen sektorerik gogorrenak etengabeko mehatxuak egin ditu. Ondorioz, Erresuma Batua ez da dagoeneko bazkide fidagarria EBrentzat.

Astearen hasieran, Erresuma Batuari berme gehiago eskatu nahi izan zitzaizkion; baina azkenean, “lankidetzaz leiala” eskatu zaio. Hasieran, Europar Kontseiluko presidentek “ateratzen ari den herrialdearen estatus”-az ere hitz egin zuen, Erresuma Batuak konpromisoa azaldu dezan luzapenean zehar ez duela legeria edo erabaki garrantzitsu ezeini betorik jarriko, edo zenbait Kontseilutan parte hartzeari ere uko egin diezaion. Baina azkenik, ondorioen testuan aipamen orokor bat egin da, hau da “lankidetzaz leiala”.

Dirudenez, inor ez da ausartzen baieztatzerantz urrira arte emandako luzapena behin betikoa izango dela. Testuak jaso duenaren arabera, egoera berrikusiko da ekaineko Kontseiluan, eta ondoren, urriko epea amaitu aurretik, beste Europar Kontseilu bat izango da. 2020ko martxoa izango da, dirudenez, behin betiko epemuga; EBko Urte Anitzeko Finantza Esparrua onartu behar den data izango baita.

Baina zalantzarik gabe, EBren ezegonkortasunerako benetako arriskua Frantziak eta Alemaniak gai horren inguruan beren artean duten desadostasuna da, gero eta nabarmenagoa baita. Datozen hilabeteak funtsezkoa dira, berriz ere, EBk Brexitaren inguruan duen etorkizuna argitzeko.

Negoziatzen hainbat ordu eman ondoren, ondorioen testu nahiko orokorrean islatu du bere jarrera EBk, eta ez du inolako berriazko agindurik jaso.

Horrela, Europar Kontseiluak:

1. Luzapen berriaren eskaera jaso du.
2. Luzapena onartu du, Ateratze Akordioa berrestea ahalbidetzeko, gehienez ere 2019.10.31ra arte. Alderdi biek Ateratze Akordioa data horren aurretik berresten badute, ateratzea hurrengo hilabetearen lehenengo egunean egingo da.
3. Nabarmentzen du luzapenak ezin diola Batasunaren eta bere erakundeen funtzionamendu normalari kalterik egin. Horrela, Erresuma Batuak EBren kide izaten jarraitzen badu 2019ko maiatzaren 23tik 26ra, eta Ateratze Akordioa ez badu berretsi 2019ko maiatzaren 22aren aurretik, Europar Parlamenturako hauteskundeak egin beharko ditu. Hori betetzen ez badu, ateratzea 2019ko ekainaren lehen egunera egingo da.
4. Berretsi du Ateratze Akordioa ezin dela berriz ere ireki, eta konpromiso edo adierazpen orok Ateratze Akordioan jasotakoarekin eta horren izaerarekin bat egin behar duela, eta ez dela oztopo bat izan behar Akordio hori betearazteko.
5. Nabarmentzen du luzapena ezin dela erabili etorkizuneko harremanen gaineko negoziazioak egiten hasteko. Baina Erresuma Batuan jarrerak “eboluzionatuko” balu, etorkizuneko harremanen gaineko Adierazpen Politikoa hartu ahalko litzateke kontuan.

6. Adierazten du luzapenean zehar Erresuma Batuak Estatu kide izaten jarraituko duela dagozkion eskubide eta obligazio guztiekin, eta Erresuma Batuak bere ohartarazpena ezeztatzeko eskubidea duela une oro.
7. Erresuma Batuak luzapen osoan zehar modu konstruktiboan eta arduratsuan jarduteko konpromisoa duela jaso du, lankidetzaz leialaren betekizunaren arabera, eta Erresuma Batuak Tratatuaren konpromiso eta obligazio hori betetzea espero du, ateratzen ari den Estatu kide dela islatuz. Hortaz, Erresuma Batuak Batasunaren atazak burutzea erraztuko du, eta ez du Batasunaren helburuak lortzeari eragin ahal dien neurririk hartuko, bereziki Batasuneko erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzen duenean.
8. Nabarmentzen du 27 Estatu kideek eta Batzordeak bilerak egiten jarraituko dutela beren aldetik eta maila guztietan, Erresuma Batua ateratzearen ondorengo egoerarekin lotutako gaiak lantzeko.
9. Gai horretaz arduratzen jarraituko du, eta egindako urratsen ebaluazio bat egingo du 2019ko ekaineko bileran.